

AURREKONTU OROKORRA
Igeldoko Toki-Entitate Txikia
2026

IGELDO





Espedientea: 2025AAOO0001

Gaia: Igeldoko toki entitate txikiko 2026ko aurrekontu orokorren onarpena

1. IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIKO BATZORDE KUDEATZAILEKO PRESIDENTEAREN MEMORIA

1.1. AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2024ko abenduaren 20an argitaratu zuen 58/2024 Foru Dekretuaren bidez, Igeldoko toki-entitate txikia eratu zuen. Foru Dekretu horrek, besteak beste, Igeldoko toki-entitatearen eskumenak, ondareak, eta aurrekontu esleipenak zehazten zituen, eta bereziki entitateari nortasun juridiko propioa eta toki-entitate izaera aitortzen zizkion.

Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, Toki-entitate txikiak honako eskumen hauek hartuko ditu , eratzen denetik 2 urte bitartean eskuratuko dituenak:

1. **Bide publikoak eta haien elementuak:** garbitzeko eta mantentzeko, kontserbatzeko, konpontzeko eta berritzeko lanak.
2. **Parkeak, lorategiak eta beste berdegune batzuk:** mantentzeko, kontserbatzeko, egokitzeko eta eraberritzeko lanak.
3. **Argiteria publikoa:** mantentzeko lanak, instalazio berriak eta daudenak berritzea.
4. **Hezkuntza-arloa:** Lehen Hezkuntzako eraikina eta Haur Eskola garbitzeko, mantentzeko eta eraberritzeko lanak; hezkuntza-arloko elkarreentzako dirulaguntzak; eta hezkuntza-batzorde eta -organoetan parte hartzea.
5. **Beste eraikin publiko batzuk:** garbitzeko, mantentzeko eta eraberritzeko lanak.
6. **Adinekoen sustapena:** ekintzak programatzea, dirulaguntzak ematea, erretiratuaren elkarrearen lokala eraberritzea, etab.
7. **Kultura-jarduerak eta jaiak:** programazioa, dirulaguntzak ematea, kultura-instalazioak eta - ekipamenduak eraiki eta moldatzea; liburutegi/ludoteka/KZGunea zerbitzua, etab.
8. **Euskararen sustapena:** dirulaguntzak ematea, eta sustatzeko nahiz sentsibilizatu eta hedatzeko beste ekintza batzuk programatzea.
9. **Kirol jarduerak eta ekipamenduak:** dirulaguntzak ematea eta beste sustapen-jarduera batzuk burutzea; kirol ekipamenduak (pilotalekua) kudeatzea, mantentzea eta eraberritzea.
10. **Partaidetza, berdintasuna, gazteria, aisia eta hezkuntza ez-arautua:** dirulaguntzak ematea eta beste sustapen-jarduera batzuk burutzea.
11. **Administrazio orokorra:** Idazkaritzako eta Kontuhartzaitzako lanak, dirulaguntzak eskatzeko eta kontratatzeko dokumentazioa prestatzekoak, eta beste administrazio-eginkizun batzuk gauzatzea.

Horretaz gain, Foru Dekretu horrek Donostiako Udalak Igeldoko Toki Entitate Txikiari gutxieneko diru-sarrerak bermatuko dizkiola zehazten zen; bere antolamendu eta funtzionamendurako, bere eginkizunak betetzeko eta bere eskumen propioak baliatzeko, bai eta berariaz eskuordetzen zaizkionak betetzeko ere.



Hori horrela izanik, Donostiako Udalbatzak 2025eko azaroaren 27ko bilkuran onartu zuen Aurrekontu Orokorrean ondorengo bi ekarpen hauek onartu zituen Igeldoko Toki-Entitate txikiarentzat:

1. Igeldoko Tokiko Entitate txikiari 2026 urteko ekitaldirako gastu korronterako diru-ekarpena: 1.201.310,00 €
2. Igeldoko Tokiko Entitate txikiari 2026 urteko ekitaldirako kapital gastuetarako diru-ekarpena: 448.901,00 €

Azkenik, Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 24ko bileran onetsitako Igeldoko toki entitate txikiaren proiektuaren ezartzen zenaren arabera, Igeldoko Auzo-batzarrari dagokio Igeldoko Toki Entitate Txikiaren aurrekontua onartzea. Hala ere, Toki-entitate txikia eratzten denetik hurrengo udal hauteskunde bitartean (2027ko maiatzera arte), Batzorde Kudeatzaile batek zuzenduko du toki-entitate txiki berria eta berari dagokio aurrekontuaren onarpena.

1.2. AURREKONTUAK JASOTZEN DITUEN EGITASMO ETA ASMO GARRANTZITSUENAK

1.2.1 Sarrera: 2026 urterako Igeldoko Toki Entitateak osatutako aurrekontuaren oinarria Toki Entitateak eman behar dituen zerbitzuak bermatzea izan da. Horretarako, oinarri hartu dira Donostiako Udalak 2025 urtean Igeldoko Toki Entitatearen lurralde eremuan emaniko zerbitzu ezberdinen kostuak. Halere, piskanaka oinarrizko elementu horiek entitatearen errealitatera egokitzeko lan bat egin da, erakundeak duen informazioarekin, herritarren beharrei ahalik eta ongien erantzun ahal izateko. Batzorde Kudeatzailearen eta laguntzen gaituzten herritarren xede nagusia etorkizuneko Igeldo benetan eraldatuko duen administrazioaren oinarriak jartzea da

1.2.2 Zerbitzuak: Trantsizioko epealdi honetan dauzkagun zerbitzuak bermatzea da helburu nagusia. 2025 urtean zerbitzu gehienak Donostiako Udalak zehaztutako kontratuen bitartez eskaini diren arren, 2026 urtera begira hori aldatzea eta Igeldoko beharretara benetan egokitutako zerbitzuak finkatzera bidean pausoak ematea da helburua. Mantenu arloan zerbitzuen jarraipen zuzenago bat egitea eta era berean etorkizunari begira ikasten jarraitzea. Azpimarratu nahiko nuke herrian mugikortasunaren arloan daukagun arazoa heldu beharreko gaia dela gure ustez. Era berean zerbitzu hauek bideratzeko dauzkagun azpiegiturak hobetu behar dira. Besteak beste plazako komunetan, eskolan eta kultur etxean hobekuntzak aurreikusita daude. Era berean, 2025 urtean frontoian hainbat hobekuntza egin dira.

1.2.3 Herritarrak: Sarreran aipatu dudan bezala funtzionatzen duena babestu behar da. Herri honetan horren adibide garbiena herritarrak eta hauek bultzatzen dituzten elkarteak dira. Herriari egiten dizkioten ekarpenak askotarikoak dira: ekintza kulturalak, aisialdia, ikastaroak, trantsizio energetikoa, merkataritza zerbitzuak, hirugarren adina... Aurrekontu honen helburua elkarte hauen diru iturri nagusitakoa diren diru-laguntzak bermatzea ere izan da. Zortez, herri honek komunitate bizia dauka eta etengabe sortzen dira elkarte berriak herriari beraien ekarpena egiteko gogoz. Arlo honetan bi apustu nagusi mantendu dira. Alde batetik, Herri Kontseiluak bultzatzen duen eta euskara hutsean egiten den Orri Informatiboaren diru-laguntzaren igoera mantendu da. Ez bakarrik euskararen normalizazioan eragiten duelako, herritarrak igeldoren inguruko informazioa jasotzeko bitarteko nagusia delako. Era berean, Mendizorrotz Guraso Elkarteak jasotzen duen dirulaguntza ere hazi egin da, elkarte honen jarduerak handitu eta zabaltzeko helburuarekin. Bestetik, gure herriak Herriko Jai duinak izateko, Jai Batzordeari eginiko dirulaguntza igoera



mantendu da. Bestaldetik aipatu nahiko nuke Toki Entitatea sortzeak eskolarekin harremanak estutzen lagundu duela, eskola herriari gerturatuz. Hau berez azkeneko urtetan ematen ari zen prozesu bat izan bada ere, eskolaren mantenuaren eskumena gure esku izateak prozesua areagotu dezake.

Eta azkenik azpimarratu nahiko nuke kulturaren aurrekontu propioa izateak ekarri dezakeen hobekuntza. Askotan muga ekonomikoak baldintzatu du herri honek izan duen eskaintza kulturala. Hala ere baditugu bestelako muga batzuk, azpiegitura egokiekin lotuta, eskaintza kulturala hobetzeko nahi honetan. Seguru gaude denborarekin eta proiektu berriekin muga horri ere soluzioa bilatuko diogula.

1.2.4 Inbertsioak: Inbertsioen atalean, azpimarratzekoa da Itsas Aurre hobetzeko bideratutako partida, gehien bat irisgarritasun arloan dauzkan gabeziak konpontzeko. Bestetik ekonomikoki garrantzitsuenak diren partiden artean aurkitzen da herriko bideak konpontzera bideratutako partida. Herritar guztiok dakigun bezala Igeldoko errepideen egoera txarra nabarmena da, honek behartzen gaitu hurrengo urtetan arlo honetan ahalegin berezi bat egitera. Berritze hauek garestiak dira eta ondorioz prozesua luzatu egingo da. Horregatik, gai honetan herritarrei pazientzia eskatu nahiko nieke. Zentzu honetan, azpimarratu beharra dago Gipuzkoako Foru Aldundiak Agiti bidea konpontzeko emandako dirulaguntza. Era berean, plaza berritzera bideratutako partida azpimarratu nahi dugu, aurreko urtean garatutako parte hartze prozesuaren ondorioak errealitate bihurtzea da partida horren helburua.

2026rako inbertsio aipagarrienak hauek izango lirateke:

INBERTSIOA	AURREKONTUA
Landa bideen konponketak	120.000,00 €
Azpiegitura eta urbanizazio lanak	70.000,00 €
Plaza berritzea	138.901,00 €
Argiteria berritzea	25.000,00 €
Eskolako hobekuntzak	15.000,00 €
Itsas aurreko hobekuntzak	100.000,00 €

1.3. AURREKONTUA

2026 urteko ekitaldirako Igeldoko Toki-entitate txikiaren aurrekontua 1.685.285,00 eurokoa da, horrela banatuta:

SARRERAK	
4. Kapitulua	1.201.310,00 €
7. Kapitulua	483.901,00 €
GUZTIRA	1.685.211,00 €
GASTUAK	
1. Kapitulua	226.096,00 €
2. Kapitulua	889.364,00 €

4. Kapitularia	82.850,00 €
6. Kapitularia	486.901,00 €
GUZTIRA	1.685.211,00 €

2. DIRU SARREREN EGOERA-ORRIA / ESTADO DE INGRESOS

DIRU SARREREN EGOERA ORRIA / ESTADO DE INGRESOS			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
2 0101.920.430.01.00 2026	Gastu korronterako ekarpena	Contribución al gasto corriente	1.201.310,00 €
2 0101.920.730.01.00 2026	Ekarpena kapital gasturako	Contribución al gasto de capital	448.901,00 €
2 0101.153.720.01.20 2026	GFA Landa bideen konponketak	DFG Reparación de caminos rurales	35.000,00 €
GUZTIRA:			1.685.211,00 €

3. GASTUEN EGOERA-ORRIA / ESTADO DE GASTOS

1. KAPITULUA – PERTSONAL GASTUAK / CAPÍTULO 1. - GASTOS DE PERSONAL			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.920.160.04.00 2026	Elkarkidetza kuotak	Cuotas Elkarkidetza	5.757,00 €
1 0101.920.162.01.00 2026	Formakuntza	Formación	800,00 €
1 0101.920.120.01.00 2026	Oinarrizko ordainsariak	Retribuciones básicas	57.956,00 €
1 0101.920.121.01.00 2026	Destino osagarria	Complemento de destino	28.305,00 €
1 0101.920.121.02.00 2026	Berariazko osagarria	Complemento específico	78.054,00 €
1 0101.920.160.01.00 2026	Gizarte segurantzak	Seguridad social	54.224,00 €
1 0101.920.162.05.00 2026	Langileen aseguruak	Seguros de los empleados	1.000,00 €
GUZTIRA			226.096,00 €

2. KAPITULUA – GASTUAK ONDASUN KORRONTE ETA ZERBITZUETAN / CAPÍTULO 2. – GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS

OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK – BIDE PUBLIKOAK / SERVICIOS PÚBLICOS BÁSICOS – VÍAS PÚBLICAS

Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.153.227.99.01 2026	Bide publikoen mantentze lanak	Mantenimiento de vías públicas	12.946,00 €



1 0101.153.227.99.02 2026	Hiri mantentze lanak	Mantenimiento urbano	156.270,00 €
GUZTIZKOAK			169.216,00 €
KOMUNITATE ONGIZATEA – BIDEAK GARBITZEA ETA KALE ARGITERIA / BIENESTAR COMUNITARIO – LIMPIEZA VIARIA Y ALUMBRADO PÚBLICO			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.163.227.01.01 2026	Bide eta etxaurreen garbiketa lanak	Trabajos de limpieza de vías públicas	115.000,00 €
1 0101.163.227.01.02 2026	Arratoien kontrola	Control de ratas	2.200,00 €
1 0101.165.221.01.00 2026	Kale argiteria	Alumbrado público	156.000,00 €
1 0101.165.227.99.00 2026	Argiteria publikoa mantendu	Mantenimiento del alumbrado público	88.000,00 €
GUZTIZKOAK			361.200,00 €
INGURUMENA – PARKEAK ETA LORATEGIAK / MEDIO AMBIENTE – PARQUES Y JARDINES			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.171.227.99.00 2026	Berdeguneak mantentzeko lanak	Tabajos de mantenimiento de zonas verdes	21.000,00 €
GUZTIZKOAK			21.000,00 €
GIZARTE ZERBITZUAK ETA GIZARTE SUSTAPENA / SERVICIOS SOCIALES Y PROMOCIÓN SOCIAL			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.231.226.06.00 2026	Adineko pertsonen sustapena ekintzak	Actividades de promoción de las personas mayores	7.000,00 €
GUZTIZKOAK			7.000,00 €
OSASUNGARRITASUN PUBLIKOAREN BABESA / PROTECCIÓN DE LA SALUBRIDAD PÚBLICA			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.311.227.01.00 2026	Komun publikoak zaindu	Mantenimiento de los baños públicos	6.146,00 €
GUZTIZKOAK			6.146,00 €
HEZKUNTZA / EDUCACIÓN			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.323.221.01.00 2026	Herri eskolako energia elektrikoa	Energía eléctrica Herri Eskola	7.638,00 €
1 0101.323.221.03.00 2026	Herri eskolako gas hornidura	Suministro de gas Herri Eskola	14.367,00 €
1 0101.323.221.11.00 2026	Herri eskolako tresna eta herramientak	Herramientas Herri Eskola	2.812,00 €



1 0101.323.221.99.00 2026	Herri eskolako konponketa materiala	Material de reparación Herri Eskola	2.006,00 €
1 0101.323.227.01.00 2026	Herri eskolako garbiketa	Limpieza Herri Eskola	104.050,00 €
1 0101.323.227.02.00 2026	Herri eskolako segurtasuna	Seguridad Herri Eskola	3.530,00 €
1 0101.323.227.99.00 2026	Herri eskolako instalazioen mantentza	Mantenimiento de instalaciones Herri Eskola	3.520,00 €
1 0101.326.226.06.00 2026	Heziketarako programak	Programas educativos	1.500,00 €
1 0101.327.226.06.00 2026	Hezkidetza proiektuak	Proyectos coeducativos	4.000,00 €
GUZTIZKOAK			143.423,00 €
KULTURA / CULTURA			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.334.221.99.00 2026	Kultura sustatzeko hordnidurak	Suministros para la promoción cultural	10.000,00 €
1 0101.334.226.06.00 2026	Kultur ekintzak	Actividades culturales	87.500,00 €
1 0101.335.226.06.00 2026	Euskara ekintza soziokulturalak	Actividades socioculturales Euskera	6.500,00 €
GUZTIZKOAK			104.000,00 €
KIROLA / DEPORTE			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.341.226.06.00 2026	Kirola sustatzeko jarduerak	Actividades de fomento del deporte	3.000,00 €
1 0101.342.211.01.00 2026	Kirol instalakuntzen eraikin artapena	Conservación de instalaciones deportivas	15.000,00 €
1 0101.342.221.01.00 2026	Kirol instalakuntzen energia elektrikoa	Energía eléctrica de instalaciones deportivas	5.000,00 €
1 0101.342.227.01.00 2026	Kirol instalakuntzen garbiketa lanak	Trabajos de limpieza de instalaciones deportivas	11.000,00 €
GUZTIZKOAK			34.000,00 €
ZERBITZU OROKORRAK / SERVICIOS GENERALES			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.920.211.01.00 2026	Eraikinen artapena	Conservación de edificios	15.000,00 €
1 0101.920.220.01.00 2026	Bulegoko materiala	Material de oficina	2.926,00 €
1 0101.920.222.02.00 2026	Posta komunikazioa	Comunicación postal	1.000,00 €
1 0101.920.221.01.00 2026	Eraikinen energia elektrikoa	Energía eléctrica edificios	7.230,00 €
1 0101.920.221.03.00 2026	Eraikinen gasa	Gas edificios	3.181,00 €



1 0101.920.226.02.00 2026	Protokolo eta ordezkariak	Protocolo y representación	1.000,00 €
1 0101.920.226.03.00 2026	Argitalpenak, publizitate eta propaganda	Publicaciones, publicidad y propaganda	1.000,00 €
1 0101.920.226.05.00 2026	Batzarrak eta lantaldeak	Asambleas y grupos de trabajo	1.000,00 €
1 0101.920.227.01.00 2026	Eraikinen garbiketa lanak	Trabajos de limpieza de edificios	9.000,00 €
1 0101.920.227.99.00 2026	Kanpoko lanak	Trabajos externos	1.000,00 €
1 0101.920.224.01.00 2026	Aseguru kontratuak	Contratos de seguros	1.042,00 €
GUZTIZKOAK			43.379,00 €
GUZTIRA			889.364,00 €

4. KAPITULUA – DIRULAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK / CAPÍTULO 4. – SUBVENCIONES Y TRANSFERENCIAS

Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.171.422.01.00 2026	E Behemendi kuota	A Cuota Behemendi	17.000,00 €
1 0101.326.481.01.01 2026	N Mendizorrotz guraso elkarte	N Mendizorrotz guraso elkarte	6.000,00 €
1 0101.326.481.01.02 2026	N Igeldoko eskola liburutegia	N Igeldoko eskola liburutegia	800,00 €
1 0101.335.481.01.01 2026	N Igeldoko eskola Bertso eskola	N Igeldoko eskola Bertso eskola	750,00 €
1 0101.334.471.01.00 2026	N Igeldoko kooperatiba	N Igeldoko kooperatiba	4.500,00 €
1 0101.334.481.01.01 2026	N Ttontorro jai batzordea	N Ttontorro jai batzordea	10.000,00 €
1 0101.334.481.01.02 2026	N Ieltxo kultur elkarte	N Ieltxo kultur elkarte	10.000,00 €
1 0101.335.481.01.02 2026	N Herri kontseilua orri informatiboa	N Herri kontseilua orri informatiboa	6.500,00 €
1 0101.231.481.01.00 2026	N Igeldoko erretiratuen elkarte	N Igeldoko erretiratuen elkarte	14.000,00 €
1 0101.340.481.01.00 2026	N Lizardi Pilota Elkarte	N Lizardi Pilota Elkarte	4.000,00 €
1 0101.340.481.01.02 2026	N Mendizorrotz Guraso elkarte eskola kirola	N Mendizorrotz Guraso elkarte eskola kirola	1.800,00 €
1 0101.924.481.01.01 2026	N Herri kontseilua Partaidetza	N Herri kontseilua Partaidetza	7.000,00 €
1 0101.924.481.01.02 2026	E Oinherri kuota	A Cuota Oinherri	500,00 €
GUZTIRA			82.850,00 €



6. KAPITULUA – INBERTSIO GASTUAK / CAPÍTULO 6. GASTOS DE INVERSIÓN

Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Hasierako aurrekontua
1 0101.150.609.01.00 2026	Azterlanak eta proiektuak	Estudios y proyectos	18.000,00 €
1 0101.153.601.02.00 2026	Landa bideen konponketak	Reparación de caminos rurales	120.000,00 €
1 0101.153.601.01.00 2026	Azpiegitura eta urbanizazioa	Infraestructura y urbanización	70.000,00 €
1 0101.153.601.01.03 2026	Plaza berritu	Reforma de la plaza	138.901,00 €
1 0101.165.623.02.00 2026	Argiteria berritu	Renovación del alumbrado	25.000,00 €
1 0101.323.622.01.00 2026	Eskolako hobekuntzak	Mejoras en la escuela	15.000,00 €
1 0101.920.622.01.00 2026	Itsas aurre hobekuntzak	Mejoras en Itsas Aurre	100.000,00 €
GUZTIRA			486.901,00 €

4. INBERTSIOEN ERANSKINA / ANEXO DE INVERSIONES

INBERTSIOEN ERANSKINA / ANEXO DE INVERSIONES				
Inbertsioa	Inversión	Azalpena	Explicación	Aurrekontua
Azterlanak eta proiektuak	Estudios y proyectos	Beste partidei lotu gabeko inbertsio ezberdinen azterlanen eta proiektuen finantzaketa.	Financiación de estudios y proyectos de diferentes inversiones no vinculadas a otras partidas.	18.000,00 €
Landa bideen konponketak	Reparación de caminos rurales	Landa bideen konponketak finantzatzeko partida.	Partida para la financiación de las reparaciones de caminos rurales.	120.000,00 €
Azpiegitura eta urbanizazioa	Infraestructura y urbanización	Hiri lurreko inbertsioak finantzatzeko partida.	Partida para la financiación de inversiones en suelo urbano.	70.000,00 €
Plaza berritu	Reforma de la plaza	Plaza berritzeko obrak finantzatzeko partida.	Partida para la financiación de las obras de reforma de la plaza.	138.901,00 €
Argiteria berritu	Renovación del alumbrado	Energia auditoritza zein herriko argiteriaren berritzea finantzatzeko partida.	Partida destinada a financiar la auditoría energética y la renovación del alumbrado público.	25.000,00 €
Eskolako hobekuntzak	Mejoras en la escuela	Eskolan sor daitezkeen behar puntualak finantzatzeko partida.	Partida destinada a financiar las necesidades puntuales que puedan surgir en la escuela.	15.000,00 €
Itsas aurre hobekuntzak	Mejoras en Itsas Aurre	Igogailua zein Itsas aurreko hainbat hobekuntza finantzatzeko partida.	Partida destinada a la financiación de ascensor y mejoras en Itsas Aurre	100.000,00 €
GUZTIRA				486.901,00 €



5. TRANFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNTEN ETA KAPITALEKOEN ERANSKINA / ANEXO DE TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES Y DE CAPITAL

DIRULAGUNTZEN ETA TRANFERENTZIEEN ERANSKINA / ANEXO DE TRANSFERENCIAS E INVERSIONES					
Kontzeptua / Concepto	Izaera	Naturaleza	Kopurua / Cuantía	Azalpena	Explicación
T Behemendi kuota	Ekarpena	Aportación	17.000,00 €	Landa garapeneko beharrei erantzuteko jarduerak	Actuaciones para atender las necesidades de desarrollo rural
N Mendizorrotz guraso elkarte	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	6.000,00 €	Heziketa jardueren sustapena	Fomento de actividades educativas
N Igeldoko eskola liburategia	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	800,00 €	Liburutegiko materiala eskuratzeko laguntza	Ayuda para la adquisición de material bibliotecario
N Igeldoko eskola Bertso eskola	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	750,00 €	Gu ere bertsoan egitasmoari laguntza	Ayuda al proyecto Gu ere bertsoan
N Igeldoko kooperatiba	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	4.500,00 €	Azokak eta beste hainbat ekimen antolatze laguntza	Ayuda para la organización de ferias y otras iniciativas
N Ttonttorro jai batzordea	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	10.000,00 €	Igeldoko jaiak antolatze laguntza	Ayuda para la organización de fiestas en Igeldo
N Ieltxo kultur elkarte	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	10.000,00 €	Kultura, jaiak eta aisialdi jardueren sustapena	Promoción de actividades culturales, festivas y de ocio
N Herri kontseilua orri informatiboa	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	6.500,00 €	Euskararen ezagutzaren eta erabileraren sustapena	Fomento del conocimiento y uso del euskera
N Igeldoko erretiratuen elkarte	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	14.000,00 €	Jubilatuaren elkartearen sustapena	Promoción de las actividades de la asociación de jubilados
N Lizardi Pilota Elkarte	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	4.000,00 €	Kirolaren sustapena	Promoción del deporte
N Mendiz. Guraso elkarte eskola kirola	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	1.800,00 €	Eskola kiroleko programaren sustapena	Promoción del programa de deporte escolar
N Herri kontseilua Partaidetza	Dirulaguntza izenduna	Subvención nominativa	7.000,00 €	Interes publikoko gaietan eta politika publikoetako erabakitze prozesuetan herritarren partaidetza sustatzea	Promoción de la participación ciudadana en los asuntos de interés público y en los procesos de decisión de las políticas públicas
T Oinherri kuota	Ekarpena	Aportación	500,00 €	Hezkidetza jarduerak	Actividades coeducativas



6. LANGILEEN ERANSKINA, ENTITATEAREN AURREKONTU PLANTILLA OSATZEN DUTEN LANPOSTUEN ZERRENDA / ANEXO DE PERSONAL, RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO QUE INTEGRAN LA PLANTILLA PRESUPUESTARIA DE LA ENTIDAD

FUNTZIONARIOEI GORDETAKO LANPOSTUAK PLANTILLA RESERVADA A FUNCIONARIOS/AS

<i>Plaza kopurua / N.º de plazas</i>	<i>Izena / Nombre</i>	<i>Taldea / Grupo</i>	<i>Egoera / Situación</i>
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA / ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL			
1	Arministrazio orokorreko teknikaria / Técnico/a de administración general	A1	H/V
1	Administraria / Administrativo/a	C1	H/V
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA / ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL			
AZPIESKALA TEKNIKOA / SUBESCALA TÉCNICA			
1	Erdi mailako teknikaria / Técnico/a medio/a	A2	H/V
1	Erdi mailako teknikaria (arkitekto teknikoa) / Técnico/a medio/a (arquitecto técnico)	A2	H/V

Identifikazioa:

H:Hutsik / V: Vacante



7. PROGRAMAZIOA, AZTERLANAK ETA AURREKONTUAK / PROGRAMACIÓN, ESTUDIOS Y PRESUPUESTOS

7.1.- BIDE PUBLIKOAK ETA HORIEN ELEMENTUAK / VÍAS PÚBLICAS Y SUS ELEMENTOS

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
<p>Programa hori arduratzen da hiriko bide publikoetako zoladurak eta plataformak osatzen dituzten elementuak mantentzeko eta kontserbatzeko zerbitzuak koordinatzeaz eta kudeatzeaz. Beraz, bere kargura egongo dira espaloiak, galtzadak, plazak, bideak eta abar eraberritzea eta konpontzea. Era berean, lehen deskribatutako elementuen gaineko obra berriak kudeatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da.</p>	<p>Este programa se encarga de las tareas de coordinación y gestión de los servicios para el mantenimiento y la conservación de los elementos que conforman los pavimentos y plataformas de las vías públicas de la ciudad. Así pues, estarán a su cargo las reformas y reparaciones en aceras, calzadas plazas, caminos, etc. Asimismo, se ocupará de la gestión y coordinación de nuevas obras sobre los elementos descritos anteriormente.</p>
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
<p>Programa honen 2026rako helburu nagusia bideen kontserbazioa, konponketa eta zoladura izango da. Gainera, Igeldoko errepideen egoera txarra kontuan hartuta, inbertsioen kapituluan, asfaltatzean eta galtzadan konponketak egitea planteatzen da, bai eta hainbat azpiegitura egokitzea eta berritzea ere. Azkenik, eta bereziki hirigunea berritzeari dagokionez, 2025ean egindako partaidetza-prozesutik eratorritako lanak egiten hasiko dira.</p>	<p>El objetivo principal de este programa para el año 2026 será la conservación, reparación y de los pavimentos de las vías. Además, atendiendo al mal estado de las carreteras de Igeldo, en el capítulo de Inversiones se plantea la ejecución de reparaciones localizadas en asfalto y calzada, así como la adecuación y renovación de diversas infraestructuras. Por último, y especialmente en lo que se refiere a la renovación del casco urbano, se empezarán a realizar los trabajos derivados del proceso participativo efectuado en 2025.</p>

BIDE PUBLIKOAK ETA HORIEN ELEMENTUAK / VÍAS PÚBLICAS Y SUS ELEMENTOS			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.150.609.01.00 2026	Azterlanak eta proiektuak	Estudios y proyectos	18.000,00 €
1 0101.153.227.99.01 2026	Bide publikoen mantentze lanak	Mantenimiento de vías públicas	12.946,00 €
1 0101.153.227.99.02 2026	Hiri mantentze lanak	Mantenimiento urbano	156.270,00 €
1 0101.153.601.02.00 2026	Landa bideen konponketak	Reparación de caminos rurales	120.000,00 €
1 0101.153.601.01.00 2026	Azpiegitura eta urbanizazioa	Infraestructura y urbanización	70.000,00 €
1 0101.153.601.01.03 2026	Plaza berritu	Reforma de la plaza	138.901,00 €



7.2.- PARKEAK, LORATEGIAK ETA BESTE BERDEGUNE BATZUK / PARQUES, JARDINES Y OTRAS ZONAS VERDES

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
<p>Programa honekin honako helburu hauek lortu nahi dira, beste batzuen artean:</p> <ol style="list-style-type: none"> Berdeguneak, parkeak eta lorategiak sortzeko eta mantentzeko lanak zuzentzea eta koordinatzea. Modu berean, zenbait lan txiki burutzeko aurrekontuzko hornidura ere jasotzen da, edozein ibilgetu material mantentzeko eta kontserbatzeko; adibidez, lorategia, berdegunea edo mintegi-haztegia osatzen dituzten elementu desberdinak. Lorategien irudia hobetzea eta horiekiko begirunea sustatzea. Landareak, sastrakak eta zuhaitzak mantentzea, berdeguneak zaintzea, zuhaitzak bakantzea eta zutikatzea. Guztiak kontrata bidez burutzen dira. 	<p>Mediante este programa se quieren conseguir los siguientes objetivos, entre otros:</p> <ol style="list-style-type: none"> Coordinar y dirigir los trabajos de mantenimiento y creación de espacios verdes, parques y jardines. Así mismo, se incluye dotación presupuestaria para la realización de algunas obras pequeñas que recogen las reparaciones, mantenimiento y conservación de cualquier inmovilizado material, como pueden ser los distintos elementos que componen un jardín, espacio verde o vivero. Mejorar la imagen de los jardines y procurar el respeto a los mismos. Mantenimiento de plantas, arbustos y arbolado, así como la conservación de zonas verdes, podas y apeo de arbolados, todo llevado a cabo a través de contrata.
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
<p>Azken urteetan, Errepideen bazterretako belarrek hainbat arazo sortu dituzte, ez direlako behar bezain beste zaindu ez eta garaiz moztu ere. Horregatik, 2026 urteko programa honen helburu nagusia bazter horien mantenu lanak zorrotz egitea izango da.</p> <p>Horretaz gain berdeguneak mantentzeko lanak kontratatuko dira, bai parke eta lorategiak ere.</p>	<p>En los últimos años, la vegetación de los márgenes de las Carreteras han creado numerosos problemas, ya que no se han cuidado lo suficiente ni se han cortado a tiempo. Por ello, el objetivo principal de este programa anual de 2026 será hacer un seguimiento exhaustivo de los trabajos de mantenimiento de estas zonas.</p> <p>Además se contratará el mantenimiento de zonas verdes, así como de parques y jardines.</p>

PARKEAK ETA LORATEGIAK / PARQUES Y JARDINES			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.171.227.99.00 2026	Berdeguneak mantentzeko lanak	Tabajos de mantenimiento de zonas verdes	21.000,00 €
1 0101.171.422.01.00 2026	E Behemendi kuota	A Cuota Behemendi	17.000,00 €



7.3 KALE GARBIKETA / LIMPIEZA VIARIA

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
<p>Programa honen bidez, Igeldoko kale eta, orokorrean, espazio publikoen garbiketa kudeatzen da. Horretaz gain, Igeldoko komun publikoen garbiketa ere programa honen jarduera lerroa ere izango da. Helburu hori lortzeko, horretarako kontratatutako enpresa batek egiten ditu Igeldoko garbitzeko lanak.</p>	<p>A través de este programa se gestiona la limpieza viaria de Igeldo y de los espacios públicos en general. Además, la limpieza de los baños públicos de Igeldo también serán línea de actuación de este programa. Para conseguir este objetivo, los trabajos de limpieza en Igeldo son realizados por una empresa contratada.</p>
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
<ol style="list-style-type: none"> 1. Igeldo egunero garbitzea, higiene eta zaintza egokiak direla bermatzeko. 2. Zaborrontziak garbitzea, hustea eta aldatzea. 3. Kaleetan botatako zaborrak garbitzea. 4. Zuhaitz-txorkoak garbitzea. 5. Kaleetako eskailerak, lurpeko eta lur gaineko pasabideak eta igogailuak garbitzea. 6. Animalien gorotzak garbitzea. 7. Noizbehinkako garbiketak: besteak beste, erakustazokak, azokak eta kontzentrazioak daudenean. 8. Garbiketa berezia jaietan. 9. Pintadak garbitzea, kartelak kentzea, iragarkiak, etab.. 10. Haurren aisialdirako guneak garbitzea. 11. Urmaelak garbitzea. 12. Kirol-instalazio irekiak garbitzea. 13. Kanean dauden animalia hilak kentzea. 14. Elurteetako plana eta ezohiko lanak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Realizar una limpieza diaria de Igeldo de manera que muestre unos niveles adecuados de higiene y cuidado. 2. Limpieza, vaciado y sustitución de papeleras. 3. Limpieza de vertidos en la vía pública. 4. Limpieza de los alcorques de los árboles. 5. Limpieza de escaleras, pasos subterráneos y aéreos y ascensores de la vía pública. 6. Limpieza de excrementos de animales. 7. Limpiezas esporádicas: ferias, mercadillos, concentraciones, etc.. 8. Limpiezas especiales en fiestas. 9. Limpieza de pintadas, retirada de carteles, anuncios, etc.. 10. Limpieza de divertimentos infantiles. 11. Limpieza de estanques. 12. Limpieza de instalaciones deportivas abiertas. 13. Retirada de animales muertos. 14. Plan de nevadas y trabajos extraordinarios.

KOMUNITATE ONGIZATEA – BIDEAK GARBITZEA / BIENESTAR COMUNITARIO – LIMPIEZA VIARIA

Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.163.227.01.01 2026	Bide eta etxaurreen garbiketa lanak	Trabajos de limpieza de vías públicas	115.000,00 €
1 0101.163.227.01.02 2026	Arratoien kontrola	Control de ratas	2.200,00 €
1 0101.311.227.01.00 2026	Komun publikoak zaindu	Mantenimiento de los baños públicos	6.146,00 €



7.4 ARGITERIA PUBLIKOA / ALUMBRADO PÚBLICO

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
Herri-argiteriaren funtzionamendua, artapena eta mantentzea; horrek berarekin dakar instalazioen prebentziozko mantentzea, matxurak konpontzea, osagarri berriak jartzea eta instalazio berri batzuk jartzea edo daudenak aldatzea. Gainera, instalazio multzoaren energia gastua kontrolatzen da.	Funcionamiento, conservación y mantenimiento de alumbrado público, lo que lleva consigo un mantenimiento preventivo de las instalaciones, reparación de averías consumadas, colocación de nuevos elementos, así como realización de pequeñas instalaciones o modificación de las existentes. Igualmente se controla el gasto energético del conjunto de instalaciones.
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
Programa honen helburua da bide publikoaren segurtasuna bermatzea argiztapen funtzional eta jasangarri baten bidez.	El objetivo de este programa es garantizar la seguridad de la vía pública mediante un alumbrado funcional y sostenible.

KOMUNITATE ONGIZATEA – KALE ARGITERIA / BIENESTAR COMUNITARIO – ALUMBRADO PÚBLICO			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.165.221.01.00 2026	Kale argiteria	Alumbrado público	156.000,00 €
1 0101.165.227.99.00 2026	Argiteria publikoa mantendu	Mantenimiento del alumbrado público	88.000,00 €
1 0101.165.623.02.00 2026	Argiteria berritu	Renovación del alumbrado	25.000,00 €

7.5 HEZKUNTZA ARLOA / EDUCACIÓN

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
<p>Igeldoko Herri eskolaren eta haur eskolaren, eraikinen funtzionamenduari, mantentzearekin eta hobetzearekin lotutako gastuak jasotzen ditu programa honek.</p> <p>Horretaz gain, Eskola komunitateari lotutako bestelako zerbitzu eta dirulaguntzak ere programa honek biltzen ditu; batetik, Eskolako liburategia osatzeko eta eguneratzeko dirulaguntza; bestetik, Mendizorrotz Guraso Elkarteak antolatzen dituen goizeko umeen zaintza edo bestelako heziketa jarduerak sustatzeko dirulaguntza; eta azkenik, hezkuntza eta heziketari loturiko ikastaroen edo jardueren kontratazioak ere programa</p>	<p>Este programa recoge los gastos relacionados con el funcionamiento, mantenimiento y mejora de los edificios de la Haur eskola y la Herri Eskola de Igeldo.</p> <p>Este programa incluye, además, otros servicios y subvenciones relacionados con la comunidad escolar; por un lado, la subvención para la creación y actualización de la biblioteca escolar; por otro, la subvención para el fomento de la atención de los niños y niñas de la mañana u otras actividades educativas organizadas por la Asociación de Padres y Madres de Mendizorrotz; y, por último, la contratación de cursos o actividades</p>



honen baitan aurreikusten dira.	educativas.
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
<p>Eskolaren eta Haur eskolaren mantenu lanekin batera eskolak eta bere instalazioek dituzten hainbat hobekuntza beharrei soluzioak topatu eta exekutatzeko.</p> <p>Bestetik, urtero bezala, eskola komunitatearekin elkarlanean hezkuntza jarduerak antolatu, goizeko zaintza bermatu eta eskolako liburutegia osatzen laguntzen jarraitu.</p>	<p>Buscar y ejecutar soluciones a las diferentes necesidades de mejora de la escuela y sus instalaciones junto con el mantenimiento de la Haur eskola y la Herri Eskola.</p> <p>Por otro lado, como todos los años, organizar actividades educativas en colaboración con la comunidad escolar, garantizar la atención de los niños y niñas de la mañana y seguir colaborando en la mejora de la biblioteca escolar.</p>

HEZKUNTZA / EDUCACIÓN			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.323.221.01.00 2026	Herri eskolako energia elektrikoa	Energía eléctrica Herri Eskola	7.638,00 €
1 0101.323.221.03.00 2026	Herri eskolako gas hornidura	Suministro de gas Herri Eskola	14.367,00 €
1 0101.323.221.11.00 2026	Herri eskolako tresna eta herramientak	Herramientas Herri Eskola	2.812,00 €
1 0101.323.221.99.00 2026	Herri eskolako konponketa materiala	Material de reparación Herri Eskola	2.006,00 €
1 0101.323.227.01.00 2026	Herri eskolako garbiketa	Limpieza Herri Eskola	104.050,00 €
1 0101.323.227.02.00 2026	Herri eskolako segurtasuna	Seguridad Herri Eskola	3.530,00 €
1 0101.323.227.99.00 2026	Herri eskolako instalazioen mantentza	Mantenimiento de instalaciones Herri Eskola	3.520,00 €
1 0101.326.226.06.00 2026	Heziketarako programak	Programas educativos	1.500,00 €
1 0101.326.481.01.01 2026	N Mendizorrotz guraso elkarte	N Mendizorrotz guraso elkarte	6.000,00 €
1 0101.326.481.01.02 2026	N Igeldoko eskola liburutegia	N Igeldoko eskola liburutegia	800,00 €
1 0101.323.622.01.00 2026	Eskolako hobekuntzak	Mejoras en la escuela	15.000,00 €

7.6 ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA / PROMOCIÓN DE PERSONAS MAYORES

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
Programaren helburu nagusia zahartze osasuntsua sustatzea eta haien partaidetza	El objetivo principal del programa es promocionar el envejecimiento saludable e



soziala areagotzea da, adinekoei eta haien elkarteei emandako laguntza hobetuz.	incrementar su participación social mediante la mejora del apoyo otorgado a las personas mayores y sus asociaciones.
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
<ul style="list-style-type: none"> Aisialdiko jardueren antolaketa eta adineko pertsonen parte hartzea sustatzea eta ahalbidetzea. Elkarteri diruz laguntzea, jarduerak garatzeko eta adineko pertsonen zuzendutako pertsonen artean boluntarioria sustatzeko. Adineko elkarteentzako lekua izatea beren jarduerak gara ditzaten. 	<ul style="list-style-type: none"> Promover y facilitar la organización de actividades de tiempo libre y la participación de las personas mayores. Apoyar económicamente a asociaciones para desarrollar actividades y promover el voluntariado entre las personas mayores. Facilitar espacios a asociaciones de mayores para el desarrollo de sus actividades.

ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA / PROMOCIÓN DE PERSONAS MAYORES			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.231.226.06.00 2026	Adineko pertsonen sustapen ekintzak	Actividades de promoción de las personas mayores	7.000,00 €
1 0101.231.481.01.00 2026	N Igeldoko erretiratuen elkarte	N Igeldoko erretiratuen elkarte	14.000,00 €

7.7 KULTUR JARDUERAK ETA JAIK / ACTIVIDADES CULTURALES Y FIESTAS

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
Kultur jarduerekin, azokekin eta jaiekin loturiko ekimenak biltzen ditu programa honek.	Este programa recoge iniciativas relacionadas con actividades culturales, ferias y fiestas.
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
<p>2026 urterako helburu asko aurreikusten dira. Batetik, Igeldoko jaietarako, azoketarako eta bestelako ekimen kulturaletarako beharrezkoak diren hornikuntzak bermatzea; eta, bestetik, ekintza soziokulturalak eskaintzea, unean uneko antzerki, hitzaldi, ikastaro edo musika saioak kontratatuz</p> <p>Bestetik, Igeldoko Ttonttorro jai batzordeari eta leltxo kultur elkarteari laguntza ekonomikoa aurreikusi zaie, Igeldoko jaiak antolatzeko eta baita aisialdi edo kultura ekimenak sustatzeko.</p>	<p>Para 2026 se prevén muchos objetivos. Por un lado, garantizar los suministros necesarios para las fiestas, ferias y otras iniciativas culturales de Igeldo y, por otro lado, ofrecer actividades socioculturales mediante la contratación de teatros, conferencias, cursos o sesiones musicales puntuales.</p> <p>Por otra parte, se ha previsto un apoyo económico a la comisión de fiestas Ttonttorro de Igeldo y a la asociación cultural leltxo, para la organización de las fiestas de Igeldo, así como para la promoción de iniciativas de ocio o culturales.</p>

KULTUR JARDUERAK ETA JAIK / ACTIVIDADES CULTURALES Y FIESTAS

Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.334.221.99.00 2026	Kultura sustatzeko hordnidurak	Suministros para la promoción cultural	10.000,00 €
1 0101.334.226.06.00 2026	Kultur ekintzak	Actividades culturales	87.500,00 €
1 0101.334.471.01.00 2026	N Igeldoko kooperatiba	N Igeldoko kooperatiba	4.500,00 €
1 0101.334.481.01.01 2026	N Ttonttorro jai batzordea	N Ttonttorro jai batzordea	10.000,00 €
1 0101.334.481.01.02 2026	N Ieltxo kultur elkarte	N Ieltxo kultur elkarte	10.000,00 €

7.8 EUSKARA SUSTATZEA / PROMOCIÓN DEL EUSKERA

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
<p>Euskararen erabileraren normalizazio prozesuan aurrera egiteko eragiten jarraitzea euskararen berreskurapen eta hedapen osoa lortzeko, bai Igeldo Toki-Entitate txikiaren administrazioaren jardunean, Igeldoko Herri Eskolan eta baita Igeldoko eremuan ere. Hau da, euskararen erabilera handitzea lortu nahi da, harremanetarako ohiko hizkuntza izan dadin eta, era berean, gizarte eta kultur kohesiorako tresna. Horretarako, herritarren motibazioa eta sentsibilizazioa landuko dira euskaraz dakitenek hizkuntza normaltasunez erabil dezaten eta ez dakitenek euskalduntzeko urratsa egin dezaten.</p>	<p>Seguir actuando para avanzar en el proceso de normalización del uso del euskera, para lograr la plena recuperación y difusión del euskera tanto en la actividad de la administración de la entidad local menor, de la Herri Eskola de Igeldo como en el entorno de Igeldo. Se trata de incrementar el uso del euskera, de modo que sea idioma habitual para relacionarse y, a su vez, herramienta para la cohesión social y cultural. Para ello se trabajará la motivación y la sensibilización de la ciudadanía con el objeto de que los que conocen el idioma lo utilicen con normalidad y los que no lo conocen comiencen un proceso de euskaldunización.</p>
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
<p>Batetik euskararen egunaren baitan hainbat ekimen soziokultural antolatu nahi dira euskararen sustapena, herritarren motibazioa eta sentsibilizazioa lantzeko. Euskararen egunetik kanpo ere, urtean zehar ekimen desberdinak antolatzea aurreikusten da.</p> <p>Bestetik, Igeldoko Herri Eskolan antolatzen den gu bertsotan egitasmoak duen garrantzia ikusirik, hura sustatzeko diruz laguntzea adostu da.</p> <p>Azkenik, Herri Kontseiluaren ekimenez euskaraz idazten den orri informatiboa ere diruz lagunduko da, euskararen erabileraren</p>	<p>Por un lado, en el marco del día del euskera se pretende organizar una serie de iniciativas socioculturales para trabajar la promoción del euskera, la motivación y la sensibilización de la ciudadanía. También fuera del día del euskera, se prevé organizar diferentes iniciativas a lo largo del año.</p> <p>Por otro lado, dada la importancia del proyecto “gu bertsotan egitesmoa” que se organizan en la Herri Eskola de Igeldo, se acuerda subvencionar su promoción.</p> <p>Por último, se subvencionará también la página informativa que se redacta en euskera a iniciativa del Herri Kontseilu de Igeldo, por</p>

normalizaziorako tresna oso garrantzitsutzat jotzen delako.	considerarse una herramienta muy importante para la normalización del uso del euskera.
---	--

EUSKARA SUSTATZEA / PROMOCIÓN DEL EUSKERA			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.335.226.06.00 2026	Euskara ekintza soziokulturalak	Actividades socioculturales Euskera	6.500,00 €
1 0101.335.481.01.01 2026	N Igeldoko eskola Bertso eskola	N Igeldoko eskola Bertso eskola	750,00 €
1 0101.335.481.01.02 2026	N Herri kontseilua orri informatiboa	N Herri kontseilua orri informatiboa	6.500,00 €

7.9 KIROL JARDUERAK ETA EKIPAMENDUAK / ACTIVIDADES DEPORTIVAS Y EQUIPAMIENTOS

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
Aurrekontu programa honek bi jarduera lerro jasotzen ditu: batetik, kirol instalazioen mantenuari dagozkionak, eta, bestetik, kirola sustatzeari lotutakoak.	Este programa presupuestario contempla dos líneas de actuación: por un lado, el mantenimiento de las instalaciones deportivas y, por otro, el fomento del deporte.
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
2026ko helburu nagusiak bi izango dira: Mantenu lanak Igeldoko Toki Entitate txikiak zuzenean kudeatzea eta kirola sustatzeko jarduerak bertatik bertara antolatzea. Horretaz gain, aipatu behar dira, Lizardi Pilota elkarteari eta Mendizorrotz Guraso Elkarteari kirola sustatzeko eskainiko zaien dirulaguntza.	Los objetivos principales para 2026 serán dos: la gestión directa del mantenimiento por parte de la Entidad Local Menor de Igeldo y la organización in situ de actividades de promoción deportiva. Además, cabe mencionar la subvención a la Asociación Lizardi Pilota y a la Asociación de Padres y Madres de Mendizorrotz para el fomento del deporte.

KIROL JARDUERAK ETA EKIPAMENDUAK / ACTIVIDADES DEPORTIVAS Y EQUIPAMIENTOS			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.341.226.06.00 2026	Kirola sustatzeko jarduerak	Actividades de fomento del deporte	3.000,00 €
1 0101.342.211.01.00 2026	Kirol instalakuntzen eraikin artapena	Conservación de instalaciones deportivas	15.000,00 €
1 0101.342.221.01.00 2026	Kirol instalakuntzen energia elektrikoa	Energía eléctrica de instalaciones deportivas	5.000,00 €
1 0101.342.227.01.00 2026	Kirol instalakuntzen garbiketa lanak	Trabajos de limpieza de instalaciones deportivas	11.000,00 €
1 0101.340.481.01.00 2026	N Lizardi Pilota Elkartea	N Lizardi Pilota Elkartea	4.000,00 €

1 0101.340.481.01.02 2026	N Mendizorrotz Guraso elkarte eskola kirola	N Mendizorrotz Guraso elkarte eskola kirola	1.800,00 €
------------------------------	--	--	------------

7.10 PARTE-HARTZEA, BERDINTASUNA, GAZTERIA, AISIA ETA ARAUTU GABEKO HEZKUNTZAKO JARDUERAK / PARTICIPACIÓN, IGUALDAD, JUVENTUD, OCIO Y ACTIVIDADES DE EDUCACIÓN NO REGLADA.

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
Programa honen jarduera lerroa zabala da, hain zuzen ere, parte-hartzea, berdintasuna, gazteria, aisia eta arautu gabeko hezkuntzako jarduerak osatzen dutelako.	La línea de actuación de este programa es amplia, ya que está compuesta por actividades de participación, igualdad, juventud, ocio y educación no reglada.
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
2026rako helburu nagusia herritarren partaidetza sustatzen jarraitzea da, herri kontseiluari emandako dirulaguntzaren bidez Era berean, partaidetza prozesuetan zehar eta gazte aisialdian eskarmentu handian duen Oinherri elkarte baxkide da Toki Entitate Txikiak prozesu horietan guztietan bidelagun izan daitezen.	El objetivo general para 2026 es seguir impulsando la participación ciudadana a través de la subvención a Herri Kontseilua. Asimismo, la ELM es socia de la asociación Oinherri, con amplia experiencia en procesos participativos y de ocio juvenil, para que acompañe a la entidad en todos estos procesos.

PARTE-HARTZEA, BERDINTASUNA, GAZTERIA, AISIA ETA ARAUTU GABEKO HEZKUNTZAKO JARDUERAK / PARTICIPACIÓN, IGUALDAD, JUVENTUD, OCIO Y ACTIVIDADES DE EDUCACIÓN NO REGLADA			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.327.226.06.00 2026	Hezkidetza proiektuak	Proyectos coeducativos	4.000,00 €
1 0101.924.481.01.01 2026	N Herri kontseilua Partaidetza	N Herri kontseilua Partaidetza	7.000,00 €
1 0101.924.481.01.02 2026	E Oinherri kuota	A Cuota Oinherri	500,00 €

7.11 ADMISTRAZIO OROKORRA / ADMINISTRACIÓN GENERAL

PROGRAMAREN JARDUERA LERROA	LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA
Programa honetan Igeldoko Toki Entitate Txikiaren eguneroko funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak biltzen dira; Langile gastuak, bulegoko gastuak eta lan	En este programa se recogen los gastos necesarios para el funcionamiento diario de la Entidad Local Menor de Igeldo; Gastos de personal, de oficina y de administración

<p>administrazioari loturikoak.</p> <p>Era berean, Toki-entitatearen eraikinak eta horien instalazioak kontserbatzea eta mantentzea du helburu, aurrekontu-programekin eta partida espezifikoekin (eskola-eraikinak, etab.) mantentzen diren eraikinak izan ezik.</p>	<p>laboral.</p> <p>Asimismo, tiene como fin la conservación y el mantenimiento de los edificios de la entidad local y sus instalaciones, con excepción de aquéllos edificios que son mantenidos con programas presupuestarios y partidas específicas (edificios escolares, etc.)</p>
2026 URTEKO HELBURUAK	OBJETIVOS DEL AÑO 2026
<p>Entitate Txikiaren 2026 urteko helburu nagusia, administrazioaren funtzionamendua bermatzea izango da.</p> <p>Bestalde, eraikinetan hornidurek eta energia kontsumoek eragindako gastuei aurre egiteko, bestetik, eraikinen eta instalazioen mantentzeak eta kontserbazioak eragindako gastuei aurre egiteko, eta, azkenik, eraikinen garbiketek sortzen dituzten gastuei aurre egitea izango da programa honen urteko helburuetako bat.</p> <p>Horretaz gain, inbertsioei dagoenez, Itsas Aurreko eraikina irisgarria izan dadin, Igoailu baten beharra dago, eta hori izango da 2026 urterako helburu nagusietako bat.</p>	<p>El objetivo principal de la Entidad Local para el año 2026 será garantizar el buen funcionamiento de la administración.</p> <p>Uno de los objetivos anuales de este programa será, por un lado, hacer frente a los gastos de suministros y consumos de energía de los edificios, por otro, hacer frente a los gastos de mantenimiento y conservación de los edificios e instalaciones y, por último, hacer frente a los gastos de limpieza de los edificios, el principal objetivo anual de este programa.</p> <p>Respecto a las inversiones, uno de los objetivos principales para 2026 será acondicionar Itsas Aurre para que sea accesible, y para ello se pretende instalar un ascensor.</p>

ZERBITZU OROKORRAK			
Aurrekontu partida	Partidaren izena	Nombre de la partida	Aurrekontua
1 0101.920.160.04.00 2026	Elkarkidetza kuotak	Cuotas Elkarkidetza	5.757,00 €
1 0101.920.162.01.00 2026	Formakuntza	Formación	800,00 €
1 0101.920.120.01.00 2026	Oinarrizko ordainsariak	Retribuciones básicas	57.956,00 €
1 0101.920.121.01.00 2026	Destino osagarria	Complemento de destino	28.305,00 €
1 0101.920.121.02.00 2026	Berariazko osagarria	Complemento específico	78.054,00 €
1 0101.920.160.01.00 2026	Gizarte segurantzak	Seguridad social	54.224,00 €
1 0101.920.162.05.00 2026	Langileen aseguruak	Seguros de los empleados	1.000,00 €
1 0101.920.211.01.00 2026	Eraikinen artapena	Conservación de edificios	15.000,00 €
1 0101.920.220.01.00 2026	Bulegoko materiala	Material de oficina	2.926,00 €
1 0101.920.222.02.00 2026	Posta komunikazioa	Comunicación postal	1.000,00 €

1 0101.920.221.01.00 2026	Eraikinen energia elektrikoa	Energía eléctrica edificios	7.230,00 €
1 0101.920.221.03.00 2026	Eraikinen gasa	Gas edificios	3.181,00 €
1 0101.920.226.02.00 2026	Protokolo eta ordezkariak	Protocolo y representación	1.000,00 €
1 0101.920.226.03.00 2026	Argitalpenak, publizitate eta propaganda	Publicaciones, publicidad y propaganda	1.000,00 €
1 0101.920.226.05.00 2026	Batzarrak eta lantaldeak	Asambleas y grupos de trabajo	1.000,00 €
1 0101.920.227.01.00 2026	Eraikinen garbiketa lanak	Trabajos de limpieza de edificios	9.000,00 €
1 0101.920.227.99.00 2026	Kanpoko lanak	Trabajos externos	1.000,00 €
1 0101.920.224.01.00 2026	Aseguru kontratuak	Contratos de seguros	1.042,00 €
1 0101.920.622.01.00 2026	Itsas aurre hobekuntzak	Mejoras en Itsas Aurre	100.000,00 €

Igeldon, sinaduraren datan

Iker Zinkunegi Arrillaga

Igeldoko Batzorde Kudeatzaileko Lehendakaria



EKS | CSV: ESKU51cd44e6-5396-4e06-8667-c4496f54cd7d

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=69010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=69010>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025AAOO0001-Memoria zuzena/Memoria corregida (Igeldoko Toki Entitate Txikia)